



PRESSTATZEN

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAN EKITEN



1



2



3



4



5



6



7



8



9



10



11



12



13



14



15



presst!


Formakuntza eta aholkularitza programa

presstatzen.reaseuskadi.eus

2022 urt-abi **BILBO**

Bilbao EKONOPOLO


REAS
EUSKADI



1

prESStatzen programa EKONOPOLO proiektuaren barruan kokatzen da

EKONOPOLOa, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloa, Bilbao Ekintzak eta REAS Euskadik elkarrekin kudeatutako proiektua da, Bilboko San Frantzisko auzoan kokatua. ESSaren inguruan lan egiten duten hainbat eragilek topo egiteko eta esperientziak, proiektuak eta baliabideak partekatzeko erreferentzia-espazio bihurtu nahi du, aldi berean, ESSaren beraren bozgorailu izanez.



2

Antolatzaileak



Partaideak





3

**Modu kooperatiboan
ekin nahi diozue?
Proiektu kolektibo
bat ekin nahi duten
PERTSONENTZAT**




4

**Ekonomikoki sostengatu
nahi duen elkarte baten
kidea zarete?
Bere jarduera
profesionalizatu nahi
duten ELKARTEENTZAT**

**Zuen enpresak ekonomia
sozial eta solidariorantz
jo nahi du?
ESS ereduera igaro
nahi duten merkataritza-
ENPRENTZAT**



5



6

PROGRAMA



7



8

FORMAKUNTZA

● Formakuntza saioak

9 saio teoriko-praktiko, Ekonomia Sozial eta Solidarioan (ESS) trebatzeko, ikaskuntzak zuen proiektuari aplikatuz. Saio guztietan, lehen zatian kontzeptuak eta tresnak aurkeztuko dira, eta bigarren zatian praktikan jarriko dira.

● Networking saioak

Gainera, 2 networking-saio egingo dira EKONOPOLOrekin lotutako ESSaren ekosistemarekin nahasteko, Merkatu Sozialeko enpresa-ekimenetatik hasita eragile publiko-pribatuenganaino, zuen proiektuak sendotzeko laguntza eman ahal izango dizute.

18 URTARRILA

ESS-AN EKITEN

Lehenengo zatian, Ekonomia Solidarioaren marko teorikoa aurkeztuko da, baita bere printzipioak ere. Bestalde, ekonomia sozial eta solidarioan ekiteko berezitasunak, abantailak eta modalitateak aurkeztuko dira.

Bigarren zatian, dinamika bat egingo da, jardunaldian parte hartuko duten pertsonak, proiektuak eta asmoak ezagutzeko.

25 URTARRILA

LURRALDE-ERROTZEA ETA TOKIKO AUKERAK

Lehenengo zatian, ekintzailtza tokiko garapeneren ikuspegitik landuko da. Bilbao Ekintzako eragileak izango dira bertan, Bilboren inguruan dauden aukerak testuinguruan kokatzen laguntzeko.

Bigarren zatian, jarduera praktiko bat egingo da, proiektu bakoitza tokiko ingurunearekin nola lotu daitekeen baloratzeko, eta proiektuak lurraldearen beharrei hobeto erantzuten lagun dezaketen gizarte-ekimenak, eragileak eta funtsezko elementuak identifikatuko dira.

1 OTSAILA

NEGOZIO-EREDUA EGOKITUZ: CANVAS SOZIALA ETA GJHAK SARTZEA

Lehen zatian, Canvas Soziala tresna ezagutzera emango da eta kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuenak nabarmenduko dira. Honez gain, GJHak eta hauek negozio-ereduaren barruan nola sartu aurkeztuko da.

Bigarren zatian, ezagutza hauek praktikan jartzeko jarduera bat egingo da, non parte-hartzaileek tresna beren proiekturako erabiliko duten.

8 OTSAILA

ERAKUNDE BIZIGARRIAK: IKUSPEGI EZ-PATRIARKALETATIK ERAIKITAKO ERAKUNDE EREDUAK

Lehenengo zatian, "Erakunde Bizigarria" kontzeptua eta haren berezitasunak azalduko dira. Halaber, proiektuetan ikuspegi feminista zeharka txertatzeko hainbat tresna aurkeztuko dira.

Bigarren zatian, jarduera bat egingo da aurkeztutako tresnak praktikan jartzeko eta parte hartzen duten proiektuen eraikuntzan ikuspegi kritiko feminista garatzeko.

15 OTSAILA

Networking saioa

INTERLANKIDETZA: EKONOPOLOKO EKOSISTEMA EKINTZAILEA SORTUZ

Saio honetan, Ekonopoloko ekosistemako hainbat pertsona, erakunde eta sare gonbidatuko dira egiten dutena aurkezteko.

Jarduera bat egingo da ekosistemako eragileen arteko lankidetzak sustatzeko.

Saio hau prESStatzen programaren erdian egingo da, ezagutzak laburbiltzeko eta ikasitakoa partekatzeko.

22
OTSAILA

ANIZTASUNETIK EKITEN

Lehenengo zatian, LGTBIQ+ dimentsioa erakundeetan nola sartu aztertuko da.

Bigarren zatian, dibertsitateetik abiatuz (bai soziokulturaletik, bai funtzionaletik) ekitea azalduko da, bai dibertsitate soziokulturaletik baita funtzionaletik ere. Horretarako, Bilbo inguruko ekintzaileen esperientziak aurkeztuko dira.

1
MARTXOA

IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA ETA ESSAREN FINANTZAKETA-BIDEAK

Lehen zatian, ESSko erakundeen berezitasun ekonomikoak azalduko dira, eta ezaugarri horiek kontuan hartuko dituen ekonomia- eta finantza-plan bat garatzeko tresnak emango dira.

Bigarren zatian, ESSko proiektuak finantzatzeko dauden alternatibien berri emango da.

8
MARTXOA

GATAZKAREN KUDEAKETA PROIEKTU KOLEKTIBOETAN

Lehenengo zatian, proiektu kolektiboen barruko gatazka ohikoenak azalduko dira, eta hauek kudeatzeko hainbat tresna aurkeztuko dira.

Bigarren zatian, parte-hartzaileek identifikatutako egoera bati aurre egiteko tresnetako bat jarriko da praktikan.

15
MARTXOA

MERKATU ALTERNATIBO BAT ETA ZIURTAGIRI BAT ESSARENTZAT: MERKATU SOZIALA ETA AUDITORIA SOZIALA

Lehen zatian, Merkatu Soziala eta Auditoria Soziala zer diren azalduko da, bi tresna ESSko erakundeak ikusarazteko eta haien balioa nabarmentzeko.

Bigarren zatian, ESSaren alternatibien kontsumoa sustatzeko dauden tresnak ezagutaraziko dira, eta jarduera bat egingo da Auditoria Sozialaren alderdi batzuk praktikan jartzeko, erakundeen eraginkortasun soziala ebaluatzeko eta ESSaren berme-zigilua bezela balio duena.

22
MARTXOA

TRAJE JURIDIKOA: ESSKO ERAKUNDE BAT ERATZEKO MODELO ETA TRAMITEAK

Lehenengo zatian, ESSaren esparruan dauden eredu juridikoak aurkeztuko dira, baita hauen berezitasun zein abantailak ere.

Bigarren zatian, jarduera bat egingo da eredu bakoitza bertan dauden proiektuetan nola egokitzen den baloratzeko eta helburu sozialerako proposamen bat garatzeko.

5
APIRILA

Networking saioa

PROGRAMAREN ITXIERA: PITCH DAY ETA PROIEKTUEN ARTEKO SINERGIAK

Saio honetan, Ekonopoloko ekosistemako hainbat pertsona, erakunde eta sare gonbidatuko dira prESStatzen programari amaiera emateko.

Prozesuan parte hartzen duten pertsonak beren proiektuak eta lortutako ikaskuntzak azaltzeko gune bat egongo da.

Halaber, Bilboko ekosistemako proiektuen, erakundeen eta eragileen arteko sinergiak bilatzeko jarduera bat egingo da.



Asteartetan 10:00etatik 13:00etara




Prestakuntza EKONOPOLOKO gunean egingo da, Harrobi plaza 4, 48003 Bilbon, osasun-baldintza guztiak betez. Murrizketak aldatuz gero, saioak birtualizatu ahal izango dira.



Saioak gaztelaniaz egingo dira, ekarpenak euskaraz egiteko aukerarekin.



9



10



11



Proiektu bakoitzak ESSan espezializatutako tutore bat izango du. Tutore honek bere prozesua lagunduko du, aholkuak emango dizkio eta proiektuaren beharretara egokitutako ad-hoc ibilbide bat prestatuko du.


Proiektuek prestakuntza osagarrietan parte hartu eta BIG Bilbaoren aholkularitza jaso ahal izango dute.

 Aholkularitza aurrez aurre edo modu birtualean eman ahal izango da, parte-hartzaileen beharren arabera.

1h

HARRERA

Ekintzaileak programaren koordinatzailearekin bilduko dira beren proiektuaren ezaugarriak eta beharrak ezagutarazteko, eta tutorea identifikatuko dute.




12

2h

IBILBIDEAREN DEFINIZIOA

Ekintzaileak programaren koordinatzailearekin eta tutorearekin bilduko dira, beren proiektuaren ezaugarriak eta beharrak oinarri hartuta, ad-hoc laguntza-ibilbide bat zehazteko.



13

10h


LAN-SAIOAK

Ekintzaileek hainbat saio izango dituzte tutorearekin, ibilbidean identifikatutako funtsezko hainbat arlo lantzeko: finantzaketa-bideak, merkataritza-estrategia, tokiko aliantzak, etab.

1h

BIZIGARRI PROZESUA: NOLA EGIN DEZAKEGU GURE ERAKUNDEA BIZIGARRIA?

Ekintzaileek REAS Euskadiko genero-erreferente eta Bizigarri prozesuaren koordinatzaile den pertsonarekin saio bat izango dute, ikuspegi feministatik antolamendu-ereduan hobekuntzak identifikatzeko eta ezartzeko.



14

2h

EBALUAZIOA ETA HURRENGO URRATSAK


Ekintzaileak programaren koordinatzailearekin eta tutorearekin bilduko dira, ezarritako ibilbidearen barruan proiektuaren aurrerapena berrikusteko eta modu autonomoan eman beharreko hurrengo urratsak zehazteko.

2h


JARRAIPENA

(Behin prozesua amaituta, 6 hilabetera)

Ekintzaileak tutorearekin bilduko dira proiektuaren bilakaera ikusteko eta aukera berriak zein laguntza zehatzen beharra baloratzeko.



15



presst!

Gurekin ontziratu nahi duzu?

IZEN-EMATEA

Sartu presstatzen.reaseuskadi.eus webgunean eta bete parte hartzeko eskabide-inprimakia. Eskabideak jasotzeko azken eguna **2021eko abenduaren 17a** da.

Zerbait kontsultatu nahi badiguzu, idatzi presstatzen@reaseuskadi.net helbidera.

